KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA, LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ, HAZIAK ETA MINTEGIKO LANDAREAK ZIURTATZEKO SISTEMA INFORMATIKOA MANTENTZEKO ETA NEKAZARITZAKO, ARRANTZAKO ETA ELIKAGAI POLITIKAKO SAILBURUORDETZAREN NEKAZARITZA ZERBITZUAREN ESKAKIZUN BERRIETARA EGOKITZEKO, ETA BARATZEKO, ORNAMENTUZKO ETA BASOKO LANDAREEN ZEIN LANDARE AROMATIKOEN ZIURTAGIRIAK SARTZEKO

Edukia

HELBURUA 3
AURREKARIAK 4
PROIEKTUA 5
Kodea eta egungo arkitektura. 5
Bisore kartografikoa sartu 5
Diseinu modularra 5
ESPARRU TEKNOLOGIKOA 6
Mahaigain birtuala 6
Garapenaren antolaera 6
LANTALDEA 7
Lantaldearen hasierako eraketa 8
Lanak egiteko ordutegia eta tokia. 8
Transferentzia teknologikoa 9
IKT KONTRATUEN BERARIAZKO BALDINTZAK 10
JARRAIPEN-, KONTROL- ETA IKUSKAPEN-MEKANISMOAK 11

HELBURUA

Helburua da mintegiko hazi eta landareen ziurtagiriak egiteko faseak ezartzen jarraitzea orain arte hasi ez diren landare-taldeentzat: baratzeko landareak, basokoak, aromatikoak eta apaingarriak. Era berean, patata, zereal, bazka eta baratzeko hazien taldeetarako ziurtagiria ere amaitu nahi da, kontrol aurreko/ondorengo modulua garatuta.

Gainera, azken ziurtagiri horiek aldaketak izango dituzte 1054/2021 araudira egokitzeko eta Nekazaritzako Zerbitzuak finkatutako gure eskakizunetara ere egokitzeko.

Amaitzeko, oinarri dokumentala sortu behar da sistemaren lineako laguntza eraikitzeko, laneko errutinetan oinarrituta eta laguntza hori ezarri.

Horretarako, honako hauek egin beharko dira:

- PATATA, ZEREAL, BAZKA ETA BARATZEKO HAZIEN ziurtagirien moduluak 1054/2021 araudia ezartzearen eskakizun berrietara egokitzea eta Nekazaritza Zerbitzuak xedatutakoaren araberako mantentze ebolutiboa egitea.
- BASOKO ziurtagiria ezartzea, azpimodulu hauekin:
    - OINARRIZKO MATERIALA eraucteko tokien kudeaketa
    - BILKETEN kudeaketa eta ZIURTAGIRI PATROIA egitea.
    - Basoko labore adierazpena.
- BARATZEKO LANDARE ziurtagiria ezartzea, araudiak eskatutako Labore Adierazpenean (aurrerantzean, LA).
- LANDARE AROMATIKO ETA APAINGARRI ziurtagiria ezartzea, araudi berriak eskatutako LArekin.
- PATATA, ZEREALAK, BAZKA eta BARATZEKO hazi ziurtagiriak gehitzea, KONTROL AURREKO/ONDORENGO modulukoak.
- TESTATZEA: Moduluak testatzea dauden erabiltzaile-rol desberdinekin sartuta, ezarpen-arloko akatsak eta erabilgarritasun-gabeziak hauteman eta zuzentzeko.
- DOKUMENTAZIOA eta LAGUNTZA: Laneko prozesuak/errutinak deskribatzeko dokumentazioa egitea, erabiltzaileen optikatik eta aplikazioan duten kontsumotik. Dokumentazioa word eta pdf formatuetan egitea proposatzen da, baina baita ikus-entzunezko laburren formatuan ere (mahai-gaineko bideo-tutorialak).

  Erabiltzailearentzako laguntza ezartzeko, CHATBOTS delakoak erabili nahi


dira, sortutako agiriekin eta Adimen Artifizialean (AI) oinarritutako irtenbideekin elikatuta. Laguntzeko ohiko atala ere jarri nahi da, sortutako dokumentazioa egituratuta eskaintzeko eta ahal dela bilatzeko aukerarekin. Dena dela, adjudikaziodunaren beste aukera batzuetara edo egingo dituen iradokizunetara ere irekita dago.

AURREKARIAK

NEKAZARITZAKO, ARRANTZAKO ETA ELIKAGAI POLITIKAKO SAILBURUORDETZA

Nekazaritza Zerbitzuaren bidez lanean ari da haren eskumenen baitan EAEn mintegiko haziak eta landareak ugaltzeko araudiak betetzen direla zaintzeko. Araudiaren eboluzioaren ondorioz eta erronka teknologiko berrietara egokitzeko beharraren ondorioz, sistema zentralizatu bat sortzeko beharra zegoela ikusi zen, xede horretarako egiteko guztiak kudeatu ahal izateko.

Aurreko faseetan oinarrizko sistema eta laborerik garrantzitsuenak (jarduera mailari dagokionez) ezarri dira, baina beharrezkoa da lantzen diren beste labore batzuetan ere aurrera egitea eta lehenengoak egokitzea araudiaren ondoriozko aldaketetara eta Zerbitzuko eskakizun berrietara, dagoeneko erabiltzeko esperientzia badelako.



PROIEKTUA

Lizitazioaren adjudikazioa ebatzitakoan, HAZIk azterketa funtzionalak eskainiko ditu eta horiek oinarri hartuta egingo dira egin beharrekoak.

Azterketa horien arabera, enpresa adjudikaziodunak proposamen bat egingo du eta HAZIk baliozkotu beharko du, garatzen hasi aurretik.

Hortik aurrera, garapenaren zedarriak finkatuko dira eta enpresak tresna egokitu beharko du.

Moduluak entregatzean, TESTINGaren emaitzen txostena ere jasotzea espero da.

Proiektuaren xehetasunak zehatzago azalduta daude honako dokumentu honetan:

Agiri teknikoaren eranskina_Haziak_2024

Kodea eta egungo arkitektura.

SSPV sistema Modeloa-Ikuspegia-Kontrolagailua arkitekturarekin garatzen ari da VB.NET eta RAZOR lengoaiarekin ikuspegiarentzat.

Negoziorako honako biblioteka hauek ere erabili beharko dira:

- RECAPLNET (HAZIren barne-biblioteka)
- NegocioSSPV (1. fasean negozioa ezarritako biblioteka)
- NegocioSSPV2 (2. fasean eta ondorengoetan negozioa ezarritako biblioteka).

Proiektu osoa Visual **Studio 2022**ra migratu da.

Dagoen iturburu-kodearekin jarraitu beharko da lanean.

Bisore kartografikoa sartu

HAZIk GIS osagai bat du (API JS, OpenLayers-en oinarrituta) eta "geo zerbitzu" propioak. HAZIko GIS arloak hornituko du GIS funtzionalitatea, baita beharrezko datu kartografikoen zerbitzuak ere, eta adjudikaziodunaren egitekoa izango da osagai hori hasierako prototipoan finkatuko den tresnan kokatzea, betiere arlo honen laguntza eta gainbegiradarekin.

Diseinu modularra

Garapenak modulu independenteen arabera aurrera egiteko aukera emango du. Horri esker, dagoeneko garatutakoen funtzionamendua bermatuko da eta beste batzuk garatu ahal izango dira, dagoeneko dabiltzatenen funtzionamenduan eragin gabe.

Kontuan izan behar da Basogintzako moduluek garapen sekuentziala dutela, beraz, ezingo da LA hasi, aurrez bilketen modulurik ez bada eta aldi berean, hau ezingo da egin, oinarrizko materialen modulurik gabe.

Heldu beharreko gainerako moduluentzat ez da horrelako eskakizunik, beraz, berdin dio garapenaren ordena zein den.

ESPARRU TEKNOLOGIKOA

Kontratu honen abiapuntu izango den lan-testuingurua zehaztuko da jarraian, lanaren eskakizunen edo beharren ondorioz egon daitezkeen aldaketei kalterik egin gabe, Proiektuaren Zuzendaritzarekin adostu ondoren.

Mahaigain birtuala

HAZIk erabiltzaileei urruneko mahaigainean (CITRIX) edo antzekoan sartzeko aukera emango die eta honakoak izango dituzte:

- Garapen-tresnak
- Abiatzeko oinarrizko proiektua (aurreko faseen garapena jarraituko da)

Garapenaren antolaera

- Ezarritako aplikazioaren garapena **Visual Studio 2022** da.
- Erabilitako lengoaia **Visual Basic** da.
- Negozioa garatzeko, **RecApINet** (HAZI biblioteka) erabiliko da eta **Jazz Programa** (**v1.2.65.02**). HAZIk garatutako tresna, HAZI metodologiarekin negozio-motak sortzeko. Gainera NegocioSSPV erabili beharko dira eta negozioaren garapenarekin jarraitu eta erabili **NegocioSSPV2** bibliotekarekin.
- Ikuspegia **Razor** eta **Bootstrap** erabilita garatutako da.
- Kodearen kontrolerako eta bertsionaturako **Tortoise Subversión 1.8** tresna

erabiltzen da eta Visual Studioren garapenaren ID mailako hedapena ere bada: **Ankhsvn edo Antzekoa, VS2022rako**

- Proiektuaren datu-baseak **Oracle v11g**-en egongo dira eta kontratua eskatzen ez bada puntualki, horren egitura HAZIk kudeatuko du.
- Dagoeneko ustiatzen ari den sistema bat denez, TESTINGerako PROBEN ingururako hedapen guztiak eta USTIAPEN ingurukoak HAZIk egingo ditu.
- SQL Server 2019-ren Reporting Services edo goragokoetan garatuko dira txostenak. HAZIk anezka bat du teknologia horretan garatutako txostenak erabiltzeko (garapenean entregatuko da dokumentazioa).
- Beste batzuk. Lantaldeen eta Proiektuaren Zuzendaritzaren artean adostuta ezarritako beste edozein arau edo estrategia.

LANTALDEA

Proposatutako lantaldea beharretara egokitutako maila profesionala eta espezializazio-maila duten langile teknikoek osatuko dute.

Enpresa lizitatzaileak hitzematen du, adjudikazioduna izanez gero, eskaintzan aurkeztutako talde hori mantenduko duela Proposamen Teknikoen Agirian ezarritakoaren arabera eta berariazko jarduera bakoitzean finkatutako aldian. Kontratuaren betearazpenari esleitutako pertsonak hasieratik egon beharko dira esleituta. Aldatu edo ordeztuz gero, aurrez HAZIri jakinarazi beharko zaio, gutxienez zerbitzuaren kritikotasunaren arabera behar den adinako aurrerapenarekin, eta betiere gehienez 15 egutegi-egun lehenago, eta HAZIk onartuko edo atzera botako du aldaketa edo ordezkapen hori. Dena den, ordezko pertsonek ordezkatu beharrekoaren profil berdina edo goragokoa izango dute.

Langileen ordezkapenak direla-eta lan-ingurura eta proiektura egokitzeko egon daitezkeen zailtasunak teilakatze-aldien arabera konponduko dira behar den denboran eta inolako gastu gehigarririk gabe. HAZIko Proiektuaren Zuzendaritzaren arabera horrelakorik ezin bada egin, ordezkoaren lehenengo hiru lan-asteak ez dira fakturagarriak izango eta enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira.

HAZIk zerbitzuetarako esleitutako pertsona bat aldatzeko eska dezake desegokia

delako edo eskatutako kaudimen eta teknika arloko eskakizunak betetzen ez dituelako, edo enpresa kontratistak egiazkoak ez diren inguruabarrak adierazi dituelako; horrelakoetan, kontratua hutsaldu daiteke eta kalifikazioetan hurrena dagoen enpresa lizitatzaileari adjudikatu. Aldaketa horretarako, aurreko paragrafoko baldintzatzaileak ezarriko dira.

Taldea laneko bilera presentzialerako deitu ahal izango da HAZIk Arkautin duen egoitzan, 24 ordu lehenago; bilera telematikoa bada, 3 ordu lehenago egin daiteke deialdia. Puntu hau behin eta berriz atzeratzen bada edo betetzen ez bada, zigorra ezarriko da Karatulako 21. puntuko kontaktuei emandako erantzunean.

Lantaldearen koordinazioa

Enpresa kontratistak bakarrik kudeatuko du lantaldea, aipatutako konpromisoekin eta lotutako erantzukizunekin.

Berak koordinatzaile bat izendatu beharko du aurreko paragrafoetan aipatutako komunikazioak bideratzeko (taldearen aldaketa, ordezkapen-eskaerak, etab.). Enpresa adjudikaziodunean onartutako solaskide bakarra izango da lantaldearen kudeaketarekin zerikusia duen guztirako.

Lantaldearen hasierako eraketa

Kontratua formalizatu ondoren lanak egiten hasiko den talde teknikoa adjudikazioko eskaintzan zerrendatutako kideek eta profilek osatuko dute, horien arabera egin baitzen balorazioa.

Adjudikazioren ondoren proiektuko taldea eskaintza teknikoan ezarritakoarekin bat ez datorrela ikusten bada, administrazio-agiriko 20. eta 21. ataletan deskribatutako elementuak ezarri ahal izango dira.

Lanak egiteko ordutegia eta tokia.

Enpresa adjudikaziodunaren instalazioetan egingo dira lanak oro har eta zenbaitetan HAZIren instalazioetara joan beharko da (Arabako Teknologia Parkea, Arkauti) bileretarako, aurkezpenetarako eta antzeko zereginetarako.

Produktuak integratu, kargatu, onartu eta puntuan jartzeko probak garapen fasean

egingo dira mahaigain birtualetik.

Lantaldearen garapen-lanak honako baldintza hauetan egingo dira:

- Oro har, lantaldeko kideek adjudikaziodunaren jabetzako hardwarea eta softwarea erabiliko dute lana egiteko, baina instalazio-lanak, ezarpenak eta abian jartzeko zereginak HAZIk esleitutako postuetatik egingo dituzte.
- Salbuespenetan eta lanen burutzapena ez datorrenean bat planifikazioarekin edo zerbitzuko beharren ondorioz hala egin behar denean, adjudikaziodunak erabateko prestasuna izan behar du ohiko ordutegitik kanpo ere (HAZIko Proiektuaren Zuzendaritzarekin aurrez akordiorik izan ezean eta jarduera garatzen den instalazioetara sartzeko prestasuna izan), eta lan horiek ez dira aparteko ordu gisa hartuko edo ez zaie horrelako orduei dagokien tarifa ezarriko.

Lantaldeak HAZIk eskatutako harremanetarako tresnak izango ditu, hau da: posta elektronikoko kontua, telefonoa, Teams kontua… eta horien bidez zuzeneko eta gertuko harremana izango da, zalantzak edo arazoak azkar konpontzeko, galderak edo proposamenak egiteko edo beharrezko komunikazio orotarako. Aipatutako bitartekoetan eskura ez egonez gero edo azkar erantzun gabe utziz gero behin eta berriro, Karatulako 21. puntuan harremanen erantzunentzat dagoen zehapena ezarriko da.

Ordu arduraldiaren programazio bat ezarriko da, HAZIk onartu egin beharko du programazio hori eta behar adinako teilakapena izango dute HAZIko eta enpresa adjudikazioduneko lantaldeek, koordinazio ona ahalbidetzeko. Ordutegirik egokiena 8:00etatik 15:30erakoa da. Aldaketa oro HAZIri jakinarazi beharko zaio eta proiektuaren zuzendaritzak onartu beharko du.

Produktuak integratu, kargatu, onartu eta puntuan jartzeko probak HAZIko lokaletan egingo dira, egon daitekeen edozein gertakizunengatik.

Jarduteko modu horrek lehentasuna izango duen arren, aldatu egin ahal izango da proiektuaren beharren arabera.

Transferentzia teknologikoa

Adjudikaziodunak kontratuaren xede diren lanak egiten dituen bitartean hitzematen du HAZIren Proiektuaren Zuzendaritzak izendatutako pertsonei eskatutako

informazio eta dokumentazio oro emango diela, garatzen ari diren lanen erabateko ezagutza izan dezaten, baita egon daitezkeen arazoen berri eta horiek konpontzeko erabilitako teknologia, metodo eta tresnen berri ere.

IKT KONTRATUEN BERARIAZKO BALDINTZAK

Kontratuaren xede diren zerbitzuetan edo hornikuntzetan IKT zerbitzuak zerbitzuak sartzen dira; beraz, HAZIk bermatu egingo du enpresa adjudikazioduna HAZIren hornitzaileentzako informazioaren segurtasun-politikara atxikiko dela, baita politika hori berariaz onartzen eta beteko dela bermatzen duela ere.

Gainera, enpresa adjudikaziodunak honako hauek egin beharko ditu:

- Zehaztu zein den edo diren berariazko helburuak eta HAZIk horiek betetzearen jarraipena kudeatzeko modua (helburuak, zedarriak, egutegia, etab.).
- HAZIren informazio-prozesuko baliabideetara sartu behar izanez gero:
  - o Lana egiteko HAZIn sartzeko eredua zein izango den zehaztuko du, eta HAZIko Zuzendaritzak baimendu beharko du.
  - o Lana egiterakoan erabiliko dituen erabiltzaile-kodeak pertsonalak eta ez generikoak izango dira, eta argi utziko da HAZIk eskubidea izango duela jarduera osoaren trazabilitatea kontrolatzeko.
- Kanpora ateratako softwarearen garapen kasuetan:
  - o Enpresa adjudikaziodunak kalteberatasunei aurre egiteko HAZIk eskatutako informazioaren segurtasun-estandarrak bete beharko ditu produktua egitean; horiek hasieran zehaztuko dira eta zerbitzu-prestazioaren eboluzioaren mende egongo dira.
  - o Enpresa adjudikaziodunak HAZIk zehaztutako tresnak baino ezingo ditu erabili eta hasieran zehaztuko dira tresna horiek, zerbitzu-prestazioaren eboluzioaren mende egongo dira.
  - o Enpresa adjudikazioduna probako eta garapeneko plataformetan baino ezingo da jardun eta bertsio egonkorren arteko aldaketak dokumentatu beharko ditu. Ustiatzen ari diren plataformetara HAZIko langileak sartuko

dira, eta berariaz galaraziko zaio sarbidea hornitzaileari HAZIn ustiatzen ari diren plataformetara.

JARRAIPEN-, KONTROL- ETA IKUSKAPEN-MEKANISMOAK.

Zerbitzuaren kalitatearen kontrola eta jarraipena HAZIko Proiektuaren Zuzendaritzak egingo du.

Lantaldea proiektuaren arduradun batek zuzenduko du eta jardunaldi finkoa eta behar adinakoa izango du, proiektuan zerikusia duten zereginak koordinatuko ditu eta HAZIko Proiektuaren Zuzendaritzarekin solaskide nagusia izango da.

Zehaztutako helburuak epeetan eta amaierako kalitatearen terminoetan etengabe betetzen direla egiaztatzeko kontrol-mekanismo guztiak ezarri beharko dira. Horretarako, honako hauek egitea aurreikusten da:

- Jarraipen-bilerak maiz
- Egindako egitekoen azterketa
- Lanen egoeren jakinarazpena
- Kontrol ekonomikoko bilerak
- Egoerari eta aurrerapenari buruzko txostenak
- Ziurtagiri partzialak: hala badagokio
- Lanen kontrol-orriak: hala badagokio
- Entregatu daitekeen dokumentazioa igorri: hala badagokio

Proiektuaren zuzendaritza eta ikuskapena proiekturako izendatutako HAZIko langileek egingo dituzte.

Laneko produktuak adjudikaziodunaren Proiektuaren Arduradunak nahiz HAZIko Proiektuaren Zuzendaritzak onartu beharko dituzte; produktuekin ados badaude,

aldeko txostena egingo dute eta une horretan hasiko da zenbatzen kanpoko edozein lanek izan beharreko bermealdia, egindako probetan hauteman gabeko akatsak egon baitaitezke.

Gainerako zerbitzuak onartzeko, HAZIko Proiektuaren Zuzendaritzak egindako lan bakoitzari dagozkion entregagarriak aztertuko ditu.

Jasotako produktuekin ados ez egoteak, bai aurrez ezarritako entrega-planarekiko irismen funtzionalari dagokionez, bai horien kalitate-mailari dagokionez, fakturazio-plana geldiaraztea eragin dezake, desadostasunak konpondu arte.

Oharra: Proposamen Teknikoaren Dokumentazioan ez da inondik eta inora ere informazio ekonomikoa jarriko (2. gutun-azala).